Exp.: 2025IKIE0025

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Obra-kontratua
XEDEA: ZUMAIAKO SANTIAGO HONDARTZAN ZERBITZU PUBLIKOAK EGOKITZEA. 1. FASEA - PROIEKTUA EXEKUTATZEA.
Prozedura ireki erraztua **Izapidea: ohikoa**

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

Exp.: 2025IKIE0025

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA AURKIBIDEA

I.- Kontratuaren edukia
1.1. Kontratuaren xedea
1.2. Gauzatu beharreko lanen azalpena
2.- Gauzatzeko baldintzak
2.1. Baldintza orokorrak
2.2. Berariazko baldintzak
3. Obrari atxikitako ekipo teknikoa
4. Hondakinen kudeaketa
5. Gauzatzeko epea
6. Prezioa
7. Bermea
8. Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plan Nazionalaren (STEP-PRTR) betekizunak

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

1.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.1. Kontratuaren xedea

Baldintza Teknikoen Agiri honen xedea da Santiagoko arrapalaren azpiko barne-egokitzapeneko obrak arautuko dituzten baldintza teknikoak definitzea; gune hori Zumaiako itsasertzeko aurrealdearen lehen lerroan dago, Santiago hondartzaren ondoan.

Jarduketaren bidez egun erabilerarik ez duten espazio batzuk erabat egokituko dira, aurretiaz dagoen egitura baten azpian definituak, horrela aldagela, dutxa, komun eta espazio osagarriak erabilera publikorako hornitzeko. Esku-hartzea onartutako gauzatze proiektuaren arabera egingo da, obra zibila, instalazioak, akaberak, aireztapena, irisgarritasuna, seinaleztapena eta proiektatutako gainerako elementuak barne.

Obrak Santiago hondartzaren ondoko inguruan egingo dira, eta, beraz, segurtasuna, osasungarritasuna eta irisgarritasuna bermatuko dira obrak egin bitartean, eta egungo erabileretan, oinezkoen fluxuetan eta ingurune naturalean eta hirigunean ahalik eta eragin txikiena izango dute.

1.2. Gauzatu beharreko lanen azalpena.

Egin beharreko lanak Santiago-hondartzan zerbitzu publikoak jartzeko gauzatze proiektuan jasotzen dira. Proiektu hori agiri honen eranskin eta zati da. Eva Cáceres Belda arkitektoak idatzi du proiektua eta Zumaiako Udalean dago interesatuen eskura.

2.- GAUZATZEKO BALDINTZAK.

2.1. Baldintza orokorrak.

1.- Gauzatu beharreko obrak lan horietarako behar bezalako prestakuntza duten langileek egingo dituzte. Arreta handiz gauzatuko dira, eraikuntzako jardunbide egokien arabera eta Zumaiako Udalak izendatuko duen zuzendaritza fakultatiboaren jarraibideak betez.

2.- Obran lan egingo duten kontratatuko langile guztiak identifikatuta joan beharko dute.

3.- Enpresa adjudikazioduna izango da aplikagarri izango den Estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko araudia betetzeko arduraduna.

4.- Enpresa adjudikazioduna behartuta dago obrei beharrezko makineria eta baliabide osagarriak ematera, kontratuan adostutako epeetan behar bezala gauzatzeko. Era berean, obrako langileen, oinezkoen eta jabetza mugakideen segurtasun-neurri guztiak jarri beharko ditu.

5.- Udal-zerbitzu teknikoek hala eskatzen dutenean egingo dira obra-bisitak, eta gutxienez astean behin. Obra Zuzendaritzako teknikariak, obra burua eta obrari esleitutako administrazioko teknikaria nahitaez joan beharko dira bertara.

6.- Enpresa adjudikaziodunak behar diren gestioak egin behar ditu, bai enpresa hornitzaileetan, bai administrazio eskudunetan, proiektua exekutatzeko behar diren baimenak lortzeko, baina

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

eskabide formalak udalak bete behar ditu. Baimen edo lizentzia horiek lortzeak tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk sortuko balituzke, horien ordainketa ere kontratistaren gain joango da.

2.2. Berariazko baldintzak.

1.- Gaur egungo egoera eta dauden zerbitzuen oinarrizko dokumentuak, honekin batera doan SANTIAGO HONDARTZAN ZERBITZU PUBLIKOAK JARTZEKO GAUZATZE PROIEKTUAN jasota daude eta informatzeko dira, beraz, zuinketak obran egiaztatuko dira. Plegu honetan, hitzez hitzeko zehaztapenak gailenduko zaizkie grafikoei eta planoei, hala balegokio, kota gailentzen zaio eskalako neurriari.

2.- Obrak behar bezala exekutatzeko behar diren hartuneak adjudikaziodunaren kontura joango dira (energia elektrikoaren hornidura kontratua berritzea edo eguneratzea, telefonia, eta abar), bai hartune horiek lortzeko gestioak, bai kontsumoak. Halaber, Udalari aurkeztu beharko dizkiote ur hornidurako eta saneamenduko hartune eskabideak Udaleko ur zerbitzuan aurkeztuko dira. Obrak eraginez gero azpiegiturei, arketei, arketen tapei, hustubideei, hiri altzarietako elementuei, argiei, lorategiei, zoladurei eta urbanizazioaren beste osagai batzuei, horiek, obrak jarri aurretik, Udaleko Zerbitzu Teknikoen onespena lortu beharko dute.

3.- Zerbitzuen eraberritzean edo konexioei dagokienez, ezer egin baino lehen, hornidurak ematen dituen aukera desberdinak aztertuko dira, etenik egon ez dadin, edo beste aukerarik ez balego, hornidura lehenbailehen berreskuratu ahal izateko. Horniduraren etenak, aldez aurretik antolatuko dira eta gutxienez ere 48 ordu aurretik jakitera emango dira. Aldaketak hauek guztiak, obra hasi aurretik Obra Zuzendaritzarekin adostuko dira eta Udal Zerbitzu Teknikoei informatuko zaie, onartuak izan daitezen.

4.- Oinezkoentzako ibilbideetan, une oro egongo da oinezkoen joan-etorrietarako zabalik. Lanek dirauten bitartean, oinezkoen joan-etorri segurua bermatu beharko da Santiagoko arrapalaren eta haren inguru hurbilaren inguruan.
Obraren faseren batek lehendik dauden oinezkoentzako ibilbideen ohiko erabilerari eragiten badio, enpresa adjudikaziodunak beste ibilbide batzuk proposatu beharko ditu. Horiek baliozkotu egin beharko ditu Zuzendaritza Fakultatiboak, eta Udaleko zerbitzu teknikoek onartu beharko dituzte. Aukera horiek gutxienez 48 ordu lehenago aurkeztu beharko dira, berrikusi eta ondoren herritarrei jakinarazi ahal izateko.
Ahal den guztietan, ibilbide alternatiboek irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bete beharko dituzte, eta mugikortasun urriko pertsonei, gurpil-aulkiei edo gurditxoei pasatzen ez uzteko oztopoak saihestuko dira. Horiek guztiak behar bezala seinaleztatuko dira, seinale bertikalak eta/edo horizontalak jarriz, aldatutako ibilbideak argi gera daitezen, eta herritarrei jakinaraziko zaizkie kartelak jarriz ukitutako guneetarako sarbideetan. Jarri beharreko trafiko-seinaleak erregelamenduzkoak izango dira, eta beren antolamendua hiri-ezaugarrietara egokituko da, bai eta obragunearen kokapenera ere, ukitutako bide-zatiari dagokionez. Halaber, enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da espaloiak eta oinezkoen pasabideak garbitasun eta segurtasun baldintza egokietan mantentzea, Udalari inolako kostu gehigarririk eragin gabe.

5.- Ibilgailuen trafikoari dagokionez, ez da aurreikusten N-634 errepidean ibilgailuen zirkulazioa etetea obrak egiten diren bitartean, premia tekniko puntualen ondorioz ohiz kanpoko kasu justifikatuetan izan ezik.

Bide horretan ibilgailuen zirkulazioa erabat edo partzialki etetea ezinbestekoa bada, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartu beharko ditu baimena lortzeko, seinaleztapen berezia

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

jartzeko, desbideratzeak egiteko, ibilbide alternatiboak ezartzeko eta mozketa zaintzeko izapide guztiak, Udalari inolako kostu gehigarririk eragin gabe. Halaber, ardura izango du legez eskatzen den aurrerapenarekin baimenak erakunde eskudunei eskatzeko eta herritarrei gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazteko, ikusteko moduko kartelen eta udal komunikazioaren bidez, beharrezkoa bada.

Afekzioak amaitu ondoren, enpresa adjudikaziodunak esku-hartzeak eragindako bide-zorua, seinaleak eta segurtasun-elementuak lehengoratu beharko ditu.

Bidea moztea eragin zuten lanak bukatutakoan, bidearen egoera lehengoratzea, zorua, seinaleak eta segurtasun elementuak barne.

6.- Obra-eremura ibilgailu astunen bidez sartzeko eta handik igarotzeko kaleak. Obra-eremura ibilgailu astunen bidez iristeko, N-634 errepide nazionala (asfaltoz zolatua) eta Santiagoko arrapala bera erabili behar dira. Arrapala hormigoizko zolataz egina dago, eta ageriko agregakinen akabera du gainazalean (garbitutako errekarria).
Makinen eta ibilgailu astunen zirkulazioak asentamenduak, pitzadurak edo bide-zorua hondatzea eragin dezake, bai errodadura-zatietan, bai biraketa-eremuetan, batez ere hormigoizko akabera duten gainazaletan.

Beraz, enpresa adjudikaziodunak bermatu beharko du zoladuraren egoera baldintza beretan mantenduko dela obrak hasi eta bukatutakoan, eta egoki iritzitako neurri prebentibo edo zuzentzaileak hartuko ditu, hala nola behin-behineko babesa, etengabeko garbiketa, errefortzua edo konponketa puntuala, Udalari inolako kostu gehigarririk eragin gabe.

7.- Enpresa kontratistak bere kontura instalatu beharko ditu obrarako sarbidea, trafiko erregulazioak, oinezkoentzako ibilbideen erregulazioak eta aldaketak, eta arriskuko puntuak adierazteko behar diren seinaleak, bai esku hartzeko eremuan bertan, bai haren mugetan eta inguruetan. Halaber, obraren izaerak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak hartu beharko ditu pertsonentzat eta ondasunentzat. Era berean, oinezko eta ibilgailuen ibilbideak aldatzen direnean berari egokituko zaio Udalak eskatutako beharrezko oharrak idaztea eta kokatzea.

8.- Ondoren, kontuan hartu beharreko hizkuntza irizpideak zehazten dira.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz; kanpo geratzen dira txosten eta memoria teknikoak. Ahozko harremanak ere euskaraz izango dira, ahal den neurrian.

9.- Hizkeraren erabilera baldintzak:
Egindako komunikazioak hizkuntzaren erabilera ez sexista egingo du, 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak adierazten duen bezala.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

10.- Materialen baldintza teknikoei, kontrolari eta materialen erabilerari dagozkien zehaztapenak, neurketa-irizpideak eta abar, Gauzatze Proiektuan daude jasota.

11.- Kontratistaren ardura izango da eta bere kontura joango da, lanak egiteko baimenak eta lizentziak lortzea. Eskumena duten erakundeek ezarritako baldintzak eta aginduak betetzea bere gain joango da. Baimen edo lizentzia horiek lortzeak tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk sortuko balituzke, horien ordainketa ere kontratistaren gain joango da.

12.- Obren onarpen harrera egin baino lehen, kontratistak obra zuzendaritzari aurkeztuko dio gutxienez dokumentazio hau:

- Exekutatutako instalazioen proiektu eta buletin ikus-onetsiak eta legalizatuak, hala dagokionean.
- Dokumentazio teknikoa eta material guztien bermea, edo berariaz adierazten duena obra zuzendaritzak, identifikatuz markak, modeloak, katalogoak, bertako hornitzailea eta mantentze lanen baldintzak.
- Bideoa euri-uren eta ur zikinen hodien eta saneamenduaren azken egoera ikuskatzeko.
- Ziurtagiria, egiaztatzen dutenak obran hondakinak zuzen kudeatu direla.
- Obran parte hartu duten enpresa azpikontratatuen eta enpresa hornitzaileen zerrenda, horien pertsona arduradunekin eta harremanetarako datuekin.

13.- Finantzaketaren publizitate instituzionala:
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, HFP/1030/2021 Aginduak eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planari (NextGenerationEU) aplika dakiokeen gainerako araudiak ezarritakoa betez, enpresa adjudikaziodunak nahitaez instalatu, mantendu eta kendu beharko du obrari buruzko informazio-kartel bat, bai eta plaka iraunkor bat jarri ere lanak amaitu ondoren.

STEP-PRTRren komunikazio-eskuliburu ofizialetan ezarritako ikusgarritasun-, diseinu-, eduki- eta kokapen-baldintzak bete behar dituzte aipatutako elementuek, eta berariaz jaso behar dituzte Europar Batasunaren ikurra, "Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU" aipamena, Berreskuratze Planaren logotipoa, Espainiako Gobernuarena, dagokion Ministerioarena eta Eusko Jaurlaritzarena, ordena horretan eta eskatutako hierarkia grafikoarekin.

Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kartela eta behin betiko plaka diseinatzeko, ekoizteko, instalatzeko, mantentzeko eta kentzeko lanen kostu guztiak, eta, betiere, bere kontura izango dira.

14.- Egindako lanen fakturak modu honetara aurkeztu beharko dira:

Espedientean jasotzen den bezala, obra honela finantzatuko da:

- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta DEBEGESAk sinatutako hitzarmenaren babesean Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia mekanismotik datozen Eusko Jaurlaritzak transferitutako funtsetatik DEBEGESAk egingo duen ekarpena. Hitzarmen hori Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkearen Helmugan Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari dagokion Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana gauzatzeko sinatu zen, Europar Batasuneko funtsekin finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan. Ekarpen hori komun publikoei dagozkien partidetarako baino ez da erabiliko.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

- Funts propioak. Horien bitartez, biltegiaren eta aldagelen inguruko jarduerak finantzatuko dira.

Hori dela eta, obra-amaierako aurrekontua bi kapitulu-multzotan banatuko da, finantzaketa bakoitza zein kapitulutan erabiliko den argitzeko. Horrek esan nahi du obra-ziurtagiriak bat etorri behar duela aurrekontu horretako kapitulu bakoitzean zehaztutako kapituluen multzoarekin eta zenbatekoekin. Argitzen da ordainketen jarraipena eta kontrola egiteko dela banaketa hori.

Horregatik, eta nahiz eta kontratu bakarra izan eta zatika banatzea ezinezkoa izan, obraren amaierako aurrekontua kapituluen bi multzotan banatuko da.

Kapitulu-multzo horiek sortzearen helburua da argi eta garbi bereizita geratzea Next Generation funtsekin finantzatutako kapituluak eta beste funts batzuekin finantzatutako diren kapituluak. Obra-ziurtagiri bakoitzean, kapituluen multzo bat egin beharko da finantzaketaren jatorriaren arabera, eta ordainketa bereiziak egingo dira (faktura bereiziak).

Enpresa lizitatzaileak zalantzarik gabe bereizi beharko ditu finantzaketa mota bakoitzari dagozkion fakturak. Funts propioekin finantzatutako kapituluak zehaztuko dira, bai eta Eusko Jaurlaritzak transferitutako Next Generation funtsekin finantzatutako kapituluak ere.

15- Azpikontratatutako enpresa bakoitzarekin, obra-zuzendaritzarekin eta udal-zerbitzu teknikoekin bilera bat egin beharko du enpresa kontratistak, azpikontratatuko den edozein instalazio eta/edo obraren zati exekutatu aurretik. Enpresa azpikontratista horiek aldatzeko, Udalaren berariazko baimena beharko da.

3. OBRARI ATXIKITAKO EKIPO TEKNIKOA

Enpresa lizitatzaileak, bere eskaintzan, obra egiten den bitartean izango duen talde teknikoaren deskribapena jasoko du. Puntu honetan definitzen den ekipoa lizitatzaileak obrara nahitaez atxiki behar dituen langileei dagokie, eta ez da baloratuko. Talde teknikoa gutxieneko langileez gain langile espezifikoekin osatzea edo oinarrizkoak diren horien dedikazioa handitzea baloratuko da, automatikoki baloratuko ez diren irizpideetako "Giza baliabideak" atalean.

Ezinbesteko ekipo teknikoa obra buruak, obra arduradunak eta ingurumen teknikariak osatuko dute, eta hauetan gutxieneko honako dedikazioa izan beharko dute:

- Obra burua: lanaldiaren % 50a
- Obra arduraduna: lanaldiaren % 100
- Ingurumen teknikaria: ezarritako betekizunen araberako dedikazioa.

Obra buruak langileen buru, eta lanen koordinazioa eta kudeaketa zuzena eramateko gaitua izan beharko du, obrako arduradun nagusia izango da eta titulazio hau eduki beharko du: graduatua ingeniaria industrialean, graduatua ingeniaria zibilean, graduatua portu, kanal eta bidetako ingeniaritzan, graduatua arkitektura teknikoan, graduatua arkitekturan edo indarrean dauden titulu baliokideak.

Obra buruak eta obrako arduradunak beren eginkizunak gutxienez antzeko ezaugarriak dituen obra batean bete izana eskatuko da.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

Obra buruak eta arduradunak obraren exekuzio egokirako presentzia izango dute obran ezarritako edo eskainitako dedikazioaren arabera, eta obra zuzendaritzaren eta Udalaren zerbitzu teknikoen esku egon beharko dute. Adjudikaziodunak talde tekniko bera mantentzeko konpromisoa hartuko du, kontratuaren prozesu osoan. Taldeko teknikariren bat aldatuz gero kontratuaren aldiren batean, teknikari berriak bete beharko ditu, gutxienez, lanbide ezaugarri berak, eskaintzan jasotako titulazioa, eskarmentu, erantzukizunak, funtzioak eta dedikazio maila parekoak. Nolanahi ere, ordezkatze hori Udalak baimendu beharko du aldez aurretik eta berariaz.

Baldintza Teknikoen Agiri honetako (aurrerantzean BTA) 4. atalean zehazten den bezala, kontratistaren betebeharra izango da obran ingurumen-teknikari bat izendatzea, Hondakinak Kudeatzeko Plana zuzen idatzi eta ezartzen dela ziurtatzeko, betebehar honek eskatzen duen dedikazioarekin. Ingurumeneko teknikariak ingurumenari buruzko unibertsitate prestakuntza izan behar du, edo obrako prestakuntza teknikoa, hondakinen kudeaketari edo ingurumenari buruzko prestakuntza espezifikoarekin osatua, hau da: ingurumen-adarreko unibertsitate-karrera guztiak (ingurumen-ingeniaritzako gradua, ingurumen-zientzietako gradua, biologiako gradua, geologiako gradua edo baliokideak) edo hondakinen kudeaketari edo ingurumen-zientziei buruzko prestakuntza gehigarria duten karrera teknikoak (ingeniaritzako gradua, arkitekturako gradua, arkitektura teknikoko gradua eta prestakuntza gehigarria).

4. HONDAKINEN KUDEAKETA

Enpresa adjudikaziodunak Eraikuntza eta Eraispen Hondakinak Kudeatzeko Plana egin beharko du, proiektuaren Hondakinak Kudeatzeko Azterlana bete eta garatzeko. Europar Batasunak obra horiek Next Generation funtsen bidez finantzatzeko Eusko Jaurlaritzak eta Zumaiako Udalak sinatutako hitzarmenean oinarrituta, Hondakinen Kudeaketa Azterlana DNSH printzipioa betez idatzi da, «Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioarekin bat datozen jarduerak diseinatzeko eta garatzeko gidaliburua» eskuliburuan ezartzen denaren arabera, zeina oinarritzat hartu beharko baita kontratistak Hondakinak Kudeatzeko Plana idazteko. Kontratistak ingurumen-teknikari bat izendatu beharko du obran, Hondakinak Kudeatzeko Plana behar bezala idatzi, ezarri eta DNSH irizpidea betetzen dela ziurtatzeko, bi administrazioek izenpetutako hitzarmenean zehazten den bezala. Hondakinak sortzen dituen obrako kapitulu guztietan aurreikusitako jarduketa orok partida bakoitzari lotutako unitateko prezioetan honako hauek jaso behar ditu: hondakinak gaika biltzeko edukiontzien alokairuaren kostua, hondakin horiek modu ordenatuan edukiontzietara eraman eta biltegiratzea, edukiontzi horiek Eusko Jaurlaritzak baimendutako hondakindegira edo zabortegira garraiatzea, distantzia edozein dela ere, eta lotutako isurketa.

Hondakinak Kudeatzeko Azterlanean ezarritako helburuak lortzearen bideragarritasuna aztertuko da. Helburu horiek egokitu egin behar badira edo helburu horiek lortzeko behar diren baliabideak handitu behar badira, proposamen teknikoaren balio iritzien bidez baloratzen diren "Proiektuaren azterketa eta proposamenak" atalean egin beharko da.

Obrako agente guztiek 112/2012 Dekretuan tipifikatutako gaiak jatorrian behar bezala bereizten dituztela ziurtatu beharko da, eta hondakinak behar bezala kudeatzen direla egiaztatzeko jarraipen eta kontrol dokumentuak bildu beharko dira.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

Era berean, ezinbestekoa da edukiontzien eremuko elementuak egokitzea eta behar bezala seinaleztatzea, obratik atera aurretik hondakinen bereiztea ziurtatzeko. Edukiontzi-parke oso baterako espazioa nahikoa ez bada, betetze-prozedura sekuentzialak ezarri beharko dira, Ihobeko Hondakinak Kudeatzeko Plana idatzi eta ezartzeko eskuliburuan zehazten den moduan.

Hondakinak nola kudeatu behar diren planean definitu eta zehaztu beharko dira, gomendio hauei jarraituz:

- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EEH) azken helmuga kontrolatu ahal izateko, obratik edukiontzi bat ateratzen den bakoitzean, hondakinak kentzen dituen garraiolariak albarana sinatuta eraman beharko du, eta obran biltegiratu beharko da.
- Azpikontratek Hondakinak Kudeatzeko Planean kontratu bidez ezarritakoa bete beharko dute.
- Obra egiten den bitartean, Ingurumeneko teknikariak prestakuntza eta informazioa emango die bai obra-ekipoari bai azpikontratei.
- Kontratistak beharrezko baliabide logistikoak eman beharko ditu azpikontratek beren EEHak manipula ditzaten, batez ere garraio- eta pilaketa bitartekoak.
- Ingurumeneko teknikariak jardunbide txarrak detektatzeko eta zuzentzeko aukera emango duen jarraipena egin beharko du. Horretarako, obraren egoeraren aldizkako kontrolak egin beharko ditu, gorabeherak erregistratu, jarraipen-panela eguneratu eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak ezarri.

Neurri horiek martxan jartzeko, Ihoberen Hondakinak Kudeatzeko Plana (maila aurreratua) idazteko eta ezartzeko eskuliburuan ezarritakoa hartu ahal izango da erreferentziatzat. Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen kudeaketaren bilakaera obraren jarraipena egiteko aldian behingo bileren nahitaezko puntua izango da.

5. GAUZATZEKO EPEA

Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko epea, gehienez 12 astekoa izango da. Obra exekuzio epea zuinketaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Obra exekuzioa hasi aurretik, kontratista adjudikaziodunak Segurtasun eta Osasun Plana egingo du dokumentazio teknikoan jasotako Segurtasun eta Osasun Azterlanean oinarrituta. Azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko ditu, eta enpresak berak aurreikusitako eraikuntza-prozesuetara egokituko ditu. Obrako segurtasun eta osasun koordinatzaileak plan hori aztertu eta planaren aldeko txostena idatzi ondoren, obra sustatzen duen administrazioak onartu eta obraren kontratu dokumentuen parte izango da.

Era berean, hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruz indarrean dagoen legeria kontuan hartuta (112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena), kontratua gauzatzen hasi aurretik, enpresa kontratista adjudikaziodunak plan bat aurkeztu beharko dio sustatzaileari, birgaitze-lanetan sortuko diren eraikuntza eta eraispen hondakinei dagozkien betebeharrak nola gauzatuko dituen adierazteko. Hondakinak Kudeatzeko Plana, zuzendaritza teknikoak berrikusi eta aldeko txostena idatzi ondoren, obra sustatzen duen administrazioak onartuko du, eta obraren kontratu-dokumentuetan sartuko da.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

Obra-plana funtsezko elementua da kontratu honetan, denborak betetzen direla egiaztatzeko eta, horrela, obrarako ezarritako epea betetzen dela kontrolatzeko. Horregatik, obra plana karatulan ezarriko diren balorazio irizpideen arabera baloratuko da. Ezinbestekoa da obra-plan hori udaltzaingoak eta/edo udal-zerbitzu teknikoek ezar ditzaketen denboretara egokitzea, obrak espazio publikoan dituen interakzioak direla eta. Beraz, kontratista adjudikaziodunak obra-plana egokituko du gauzatzen den bitartean, egoerak hala eskatzen duenean, zuzendaritza fakultatiboak eta udal-teknikariek onar dezaten.

6. PREZIOA

Lizitazio-aurrekontua, ERANSKINeko proiektuan jasotako aurrekontuaren banakapenaren arabera, BERREHUN ETA HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMOKOA (218.594,32 €) da, BEZa barne.

7. BERMEA

Berme-epea gutxienez urtebetekoa izango da, edo adjudikaziodunak eskainitakoa, karatulako 27. ataleko 2. irizpidean definitutako adjudikazio-irizpidean ezarritakoaren arabera, obra jasotzen den egunetik hasita. Berme-epea proiektuak barne hartzen dituen material eta instalazio guztietan izango da eraginkorra.

8.- SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLAN NAZIONALAREN (STEP-PRTR) BETEKIZUNAK***

8.1. DNSHren berariazko baldintza hauek kontuan hartzea:

Kontratistak bermatuko du "ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipioa (Do No Significant Harm - DNSH printzipioa) eta, hala badagokio, etiketa klimatikoa eta digitala erabat beteko direla, Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan (Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) Gida Teknikoarekin (2021/C58/01) eta Espainiaren berreskuratze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Exekuzio Erabakian aurreikusitakoarekin bat etorriz. Era berean, kontratu honen xede den jarduera osoa edo zati bat azpikontratatzen bada, erakunde adjudikaziodunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu azpikontratistek "ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko, (EB) 2020/85 Erregelamenduaren 17. artikuluaren ildoan.

Egiten diren jarduera guztietan, estatuko eta EBko ingurumen-araudia errespetatuko da, eta, nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarrean dagoen legediaren arabera aplikatzekoak direnean, bai eta ingurumen-legediaren arabera aplika daitezkeen ondorioen beste ebaluazio batzuk ere.

Indarrean dagoen araudia betetzeak ez du esan nahi DNSH printzipioa ebaluatu behar ez denik, eta ez du berez justifikatzen jarduera DNSH printzipioaren araberakoa denik.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

«Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko Gida Teknikoa (2021eko otsailaren 18ko C 58 EO, 1. or.) erabat betetzen dela bermatzeko, kanpoan uzten dira jarraian zerrendatzen diren jarduerak: i) erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien geroko erabilera barne; ii) EBko isurketa-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen isuriak dagozkion erreferentzia-parametroen azpitik ez jartzea aurreikusten denean; iii) hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko plantekin lotutako jarduerak; eta iv) epe luzera hondakinak ezabatzeak ingurumenean kalteak eragin ditzakeen jarduerak, bai eta MITERDen DNSH gidaren II. eranskinaren araberako DNSH ebaluazioa negatiboa dutenak ere.

Kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistek ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH) betetzen dela justifikatu beharko dute, DNSH printzipioarekiko egokitzapenaren aldeko ebaluazio baten bidez, DNSH printzipioarekiko egokitzapenaren aldeko ebaluazio baten bidez, edo, hala badagokio, betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, MITERDek argitaratutako gidaren II. eta III. eranskinen arabera. Nolanahi ere, entitate adjudikazioduna entitate kontratatzaileak «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (DNSH) betetzen dela ziurtatzeko hartzen dituen egiaztatze-mekanismoen eta neurri zuzentzaileen mende egongo da.

Printzipio hori errespetatzeko betebehar orokorraz gain, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek neurriak izan ditzakeen DNSHren baldintza espezifikoak bete beharko dituzte. Hala, STEP-PRTRren 14. osagaiaren (1. inbertsioa) 8. atalean PSTD jardueretarako (2. azpineurria) ezartzen den bezala, birgaitzeak, ekipamenduak, azpiegiturak eta abar eskatzen badituzte. DNSHren baldintza espezifiko hauek hartuko dira kontuan:

STEP-PRTRn jasotako betearazpen-neurriek ezin diete kalte nabarmenik eragin sei ingurumen-helburu hauei:

1. Klima-aldaketa arintzea: Eraikinak birgaitzean, kontuan hartuko dira eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko (EB) 2018/844 Zuzentarauan jasotako jarraibideak, energia-kontsumo ia nuluko eraikinak izan daitezen, eta, hala, nabarmen murriztu ahal izango da berriztagarria ez den energia primarioaren kontsumoa, gutxienez % 30.

2. Klima-aldaketara egokitzea: birgaitze-neurriek aukera emango dute eraikinak klima-aldaketara egokitzeko, ahal diren egokitze-irtenbideak hartuz, lehendik dauden eraikuntzek eta haiek babesteak ahalbidetzen dituzten aukeren esparruan, hala nola landare-estalkiak, olanak, itzaldura-eremuak… erabiltzea.

3. Erabilera jasangarria eta ur- eta itsas baliabideen babesa: ez da aurreikusten neurria kaltegarria izango denik erabilera jasangarrirako eta ur- eta itsas baliabideen babeserako. Helmuga turistikoak eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko estrategietara hobeto egokitzea, baliabide hidrikoen kontsumoa murriztea eta baliabide naturalak (itsasokoak, bereziki) babestea du helburu neurriak.

Ur-aparatuak instalatzen direnean, Europar Batasunean dagoen produktu-etiketa izango dute.

Obraren inpaktua saihesteko, uraren kalitatea babestearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatu eta jorratuko dira, uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan baten arabera.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

Neurriko inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea aurreikusten da, IIEren Zuzentarauaren arabera, eta proiektu bakoitzaren diseinuan identifikatu eta islatu dira baliabide hidrikoen erabilera jasangarria egiteko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak».

4. Ekonomia zirkularrerako trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne:

- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuan), gutxienez (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Europako hondakinen zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala kenduta), beste material batzuk berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berreskuratzeko prestatuko da, beste material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz egiten diren betelanak barne, hondakinen hierarkiaren eta EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera.
- Operadoreek eraikuntza- eta eraispen-prozesuetan hondakinen sorrera mugatuko dute, EBko Eraikuntza eta Eraispen Hondakinen Kudeaketa Protokoloarekin bat etorriz eta eskuragarri dauden teknikarik onenak kontuan hartuz eta gaikako eraispena erabiliz, substantzia arriskutsuak ezabatu eta modu seguruan manipulatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklapena errazteko, materialak gaika ezabatuz, eraikuntza- eta eraispen-hondakinetarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz.
- Eraikinaren diseinuak eta eraikuntza-teknikek ISO 20887 arauari dagokion zirkularitatea bultzatuko dute eraikinen desmuntatze- edo egokitze-gaitasuna ebaluatzeko, baliabideen erabileran eraginkorragoak, moldagarriagoak, malguagoak eta desmuntagarriagoak izan daitezen, berrerabilpena eta birziklapena ahalbidetzeko.

5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola: neurriak ez du ekarriko atmosferara, uretara edo lurzorura egiten diren isurpen kutsatzaileen gorakada nabarmenik; izan ere, neurrien helburua da, besteak beste, turismo-jarduerak lurraldean egiten duen presioa gutxitzea, jasangarritasunean oinarrituta.

Energia fosiletan oinarritutako berokuntza- eta hozte-sistemak zero kutsatzaileko beste teknologia batzuekin ordeztera bideratutako jarduketen izaera orokorrak aukera emango du airera egiten diren emisioak nabarmen murrizteko eta, ondorioz, osasun publikoa hobetzeko. Eraikinen birgaitzea sustatzeari dagokionez aurreikusitako jardueren izaera orokorrak, energia-eraginkortasunaren kontzeptua barne, argi eta garbi adierazten du atmosferako poluitzaileen emisioak murriztuko direla, batez ere, energia-kontsumoa gutxitzearekin lotuta.

Eraikuntzan erabilitako eraikuntza-osagaiek eta -materialek ez dute amiantorik edo oso substantzia kezkagarririk izango, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean ageri den baimena behar duten substantzien zerrendan oinarrituta identifikatuak. Eraikuntzan erabilitako eraikuntza-osagaiek eta -materialek, erabiltzaileekin kontaktuan jar daitezkeenek, 0,06 mg formaldehido baino gutxiago igorriko dute material edo osagai m³ bakoitzeko, eta 0,001 mg baino gutxiago 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko lurrunkor kantzerigenoak material edo osagai m³ bakoitzeko, aldez aurretik CEN / TS 16516 eta ISO 16000-3 kodeekin edo beste proba-baldintza estandarizatu batzuekin probatu ondoren.

Gainera, obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta neurri horri lotutako jarduerak egingo dira, betiere indarrean dagoen araudi aplikagarria betez, lurzoruak eta ura kutsatzeari dagokionez.

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

6. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea: "Neurriak ez du ondorio kaltegarririk izango ez biodibertsitatean ez ekosistemetan, ingurune naturalak, itsasokoak eta lehorrekoak babestu nahi dituelako, Espainiako turismo-politikaren elementu bereizgarri gisa. Birgaitze-jarduerak biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOren Munduko Ondarearen guneak, biodibertsitaterako funtsezkoak diren eremuak eta beste eremu babestu batzuk barne) edo hurbileko eremuetan egiten direnean, Habitatei buruzko Zuzentarauaren 6(3) eta 12. artikuluak eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 5. artikulua bete beharko dira. Gainera, pertzepziozkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) egingo da, IEA Zuzentarauarekin bat etorriz."
Jardueren diseinua eta garapena DNSH printzipiora egokitzeko, gida orientagarri hau erabil daiteke: https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicionverde/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf

8.2.- Etiketatzea

2021/241 EUROPAKO ERREGELAMENDUAREN VI. ERANSKINEKO 050 etiketa esleitu zaio.

Batez beste, bitarteko sakontasun-maila bat gutxienez berritzea, Batzordearen 2019/786 (EB) Gomendioan (eraikinak berritzeari buruzkoa) zehazten den moduan. Eraikinak berritzearen helburua da, baita ere, azpiegiturak 85 eta 92 arteko esku-hartze eremuen zentzuan sartzea. Lehen mailako energia-aurrezkiaren % 30, gutxienez, oinarri hartuta lortu beharko du: Informazio gehiagorako Gida praktikoa 2021-2023ko Jomugetako Turismo Jasangarritasuneko ezohiko programari lotutako ingurumen-baldintzak betetzeko.

Kontratu hau gauzatzean, kontratu honen adjudikaziodunak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek obligazioa dute etiketatze berdearen eta etiketatze digitalaren alorrean jarduera guztiek dituzten obligazioak betetzeko:

- 2. Jarduketa – 1. ardatza: "Santiagoko Arrapala":

• Esku-hartze eremua: 050 "Natura eta biodibertsitatea, ondarea eta baliabide naturalak, azpiegitura berdeak eta urdinak babestea."

• Klimaren koefizientea: % 4
• Ingurumen-koefizientea: %100
• Koefiziente digitala: N/A

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

Exp.: 2025IKIE0025

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

Contrato de obra
OBJETO: EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN - HABILITACION DE SERVICIOS PUBLICOS EN LA PLAYA DE SANTIAGO DE ZUMAIA. FASE 1.
Procedimiento abierto simplificado **Tramitación: ordinaria**

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS **ÍNDICE**

I.- Contenido del contrato
1.1. Objeto del contrato
1.2. Descripción de los trabajos a realizar.
2.- Condiciones de ejecución.
2.1. Condiciones generales.
2.2. Condiciones específicas.
3. Equipo técnico asignado a la obra
4. Gestión de residuos.
5. Plazo de ejecución
6. Precio.
7. Garantía.
8. Requisitos del Plan Nacional De Recuperación, Transformación Y Resiliencia (PRTR)

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

1.- CONTENIDO DEL CONTRATO

1.1. Objeto del contrato

El presente Pliego de Prescripciones Técnicas tiene por objeto definir las condiciones técnicas que han de regir la ejecución de las obras de acondicionamiento interior bajo la rampa de Santiago, situada en primera línea del frente litoral de Zumaia, junto a la playa urbana de Santiago.

La actuación consiste en la adecuación integral de unos espacios actualmente sin uso definidos bajo una estructura preexistente, con el fin de dotarlos de vestuarios, duchas, aseos y espacios auxiliares para el uso público. La intervención se realizará conforme al proyecto de ejecución aprobado, incluyendo obra civil, instalaciones, acabados, ventilación, accesibilidad, señalización y demás elementos proyectados.

Las obras se desarrollarán en el entorno urbano inmediato a la playa de Santiago, por lo que deberán ejecutarse garantizando la seguridad, salubridad y accesibilidad durante toda la intervención, minimizando el impacto sobre los usos existentes, los flujos peatonales y el entorno natural y urbano.

1.2. Descripción de los trabajos a realizar.

Los trabajos a realizar quedan recogidos en el Proyecto de Ejecución para la habilitación de servicios públicos en la playa de Santiago, que acompaña como anexo y forma parte del presente pliego. El proyecto ha sido redactado por la arquitecta Eva Cáceres Belda y se encuentra a disposición de los interesados en el Ayuntamiento de Zumaia.

2.- CONDICIONES DE EJECUCIÓN.

2.1. Condiciones generales.

1.- Los trabajos a realizar serán llevados a cabo por personal debidamente cualificado para ello, se ejecutarán esmeradamente con arreglo a las buenas prácticas de la construcción y cumpliendo las instrucciones de la dirección facultativa designada al efecto por el Ayuntamiento de Zumaia.

2.- Todo el personal de la contrata que trabaje en la obra deberá ir identificado.

3.- La empresa adjudicataria será responsable del cumplimiento de la normativa estatal, autonómica y local que le sea de aplicación.

4.- La empresa adjudicataria queda obligada a aportar a las obras el equipo de maquinaria y medios auxiliares que sean precisos para la buena ejecución de aquellas en los plazos convenidos en el contrato. Asimismo, deberá aportar todas las medidas de seguridad del personal de obra, viandantes y propiedades colindantes.

5.- Las visitas de obra se realizarán siempre que los servicios técnicos municipales lo requieran y como mínimo una vez a la semana. A las mismas acudirán obligatoriamente el personal

ESKU10c9407f-a7e8-45ef-a46f-0ce19aa42767

técnico de la Dirección de Obra y el Jefe de Obra, y el técnico de la administración asignado a la obra.
6.- La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones que sean precisas para la ejecución del Proyecto, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento. Cuando se exijan tasas, fianzas u otros gastos por dichos permisos, licencias o autorizaciones, su abono o depósito será también a cargo de la contratista

2.2. Condiciones específicas.

1.- La documentación básica del estado actual del edificio como de los servicios existentes queda recogida en el PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA HABILITACION DE SERVICIOS PUBLICOS EN LA PLAYA DE SANTIAGO y tiene carácter informativo, por lo que todas las cotas y trazados de servicios se comprobarán en obra. En este pliego las especificaciones literales prevalecen sobre las gráficas y en los planos, en su caso, la cota prevalece sobre la medida a escala.

